

LORE MORE
NAFAR ANTZERKI KONPAINIA

TRAPU ZIKINAK

GARBITZEN DUEN HITZA

Herri garbitokietatik abiatutako
antzerki sorkuntza kolektiboa

GEURETIK SORTUAK
UDALBILTZA

- 
- A black and white photograph of a rural scene. In the foreground, a young boy is crouched on the ground, looking towards the camera. To his right, another young boy stands, looking slightly away. In the background, two more children are visible, one sitting and one standing. A line of laundry is hanging across the scene. The overall atmosphere is one of a simple, rural life.
- **AURKEZPENA**
 - **SINOPSIA**
 - **ESPAZIO EZBERDINETARA EGOKITZEA**
 - **FITXA ARTISTIKOA**
 - **FITXA TEKNIKOA**
 - **TALDEA**
 - **KONTAKTUA**

AURKEZPENA



Berpiztu ikus-entzunezkoen argazkia

Lore More 2018an sortutako antzerki talde nafarra da. Maialen Diaz Urriza eta Mikele Urroz Zabalzak osatu zuten. Proiektu honetan, Laura Vilanueva aktoreak eta Lucia Ezker Rekalde ekoizleak ere parte hartu dute.

Trapu Zikinak, garbilekuetan bildu eta lan egiten zuten emakumeen lanari omenaldi bat egitearen desirarekin sortutako antzezlan da.

Trapu zikinak etxean garbitzen direla esan ohi da; adierazpen horrek intimitatearekiko begirada kultural bat jasotzen du, kontatu daitekeena eta ezin daitekeena. Hala ere, gure herrietako garbitokiak presentziak erakusten digu berez, arropak kalean garbitzen zela eta bizilagunen bistan. Honek gure arbasoen harremanak beste ikuspegi batetik irudikatzera eramaten gaitu: agian, esamolde horren iluntasunaren ordeztu, emakume horiek garbitokietan beraien bizipenak konpartitu eta sareak eraikiko zituztela. Honela, intimitatearen trapu zikinak batera (edo elkarrekin) garbitzea, ekintza boteretsua bilaka zitekeen.

Teknologia ailegatzerakoan, 50. - 60. hamarkadetan, emakumeak, lan honen esfortzu fisikoatik askatuta, haien etxeetara itzuli ziren. Lan honen indibidualizazioak espazio hauen bizipen eta praktikak desagerrarazi zituen.

Gure belaunaldiak ez du lan gogor hau bizi, baina hurbildu nahi dugu espazio honek emakume hauentzat izan zezakeen esanahietara eta elkartze honek suposatzen zuenera, haientzat zuten espazio ez mixto bakarretako batean. Espazio hauetan egunerokotasuneko bizitza nola sostengatzen zuten ikertu dugu antzezlanean.

Beraz, “pertsonala politikoa da” baieztapenera heltzen diogu hurrengo galderak botatzeko: Nola da intimoa dena publikoki garbitzea? Zer dira trapu zikinak bakoitzarentzat eta nola garbitzen dira? Ze distantzia edota antzekotasun daude belaunaldi horren eta gurearen artean?



Oiartzungo garbilekua, Alaiartek sortutako muralarekin. Geuretik Sortuak deialdiaren barnean egindako egonaldian egindako argazkia.

SINOPSISIA

“Trapu zikinak etxean garbitzen dira” esaten bada ere, herri garbilekuek, egun mutu dauden harritzarrek, beste errealitate posible bat agerian uzten dute: trapuok kalean garbitzen zirela, alegia, bizilagun, senide eta lagunekin batera; intimitatearen ideia begi berriz aztertu dezakegu iraganeko ur horietan murgiltzen baditugu eskuak.

Nola garbitzen dira lotsak utzitako orbanak?
Eta indarkeriarenak?
Zeri esaten diogu “zikin”?
Zertaz hitz egin daiteke? Zer hitzekin?

Garbigailuen iritsierarekin espazio hauek hutsik geratu ziren. Zer gertatu da trapu zikinekin, baina? Nola garbitzen ditugu gaur egun?

Gerraosteak utzitako pobrezia, adiskidetasuna, patroiaaren bidegabekeria, maitasuna, lana eta etorkizunerako desirak gorpuztuko dira garbitzen diharduten emakume saldoan. Hotza eta zikineria izango dituzte bidelagun; azken hauek ere badute zer esan bizi garen munduaz...

Ikuskizun hau garbilekuetan jo ta fuego aritu ziren arbasoei omenaldia da. Haien izerdi eta irriei, haien arteko laguntza eta isiltasunei. Izan zirelako, gara.



Berpiztu ikus-entzunezkoen argazkia

ESPAZIO EZBERDINETARA EGOKITZEA

Antzezlan hau Udalbiltzaren "Geuretik sortuak" deialdiaren baitan sortu genuen 2021 - 2022 bitartean eta hainbat emanaldi egin ditugu beka honi esker Euskal Herri osotik zehar. Trapu Zikinak bai antzokietan baita garbilekuetan edota emakumeen garbitzen zuten lekuetan antzezteko moduan diseinatu genuen, espazio horiek duten xarma berezia antzerkiaren bidez berpizteko asmoz.

Obra hau Oiartzungo garbilekuan, Amasa - Villabonako baserri batetako garbilekuan, Lodosan (Ebro ibaiertzean) eta Aldatzeko garbilekuan egin dugu. Hemendik aurrera emanaldi horietako argazki batzuk atxikitzen ditugu, emanaldia nola geratu zen pixkat erakusteko asmoz.



Aldatzeko garbilekua



FITXA ARTISTIKOA

Testua eta zuzendaritza Lore More

Antzezleak Laura Villanueva, Maialen Díaz Urriza eta Mikele Urroz Zabalza

Ekoizpena Lucia Ezker

Musika Harkaitz Martínez de San Vicente

Jantziak Iona Lakunza

Eszenografía Orekari

Argi diseinua Andrés Dwayer

Argi teknikaria Fermin Izko

Argazkiak Berpiztu Ikusentzuezkoak / Lucia Ezker / Olaia Gerendiain

Bertsoak: Alaia Martin



Olaia Gerendiain-en argazkia

FITXA TEKNIKOA

Ikuskizuna garbileku, ibaiertz edo bestelako espazio ez-ohikoetan emateko, hauexek dira **behar teknikoak**:

- 8 Par LED inalambrikoak
- 2 tripode + T
- 220V ra konektatzen den dimmer txiki horietako 1
- 2 PC
- 2 esku mikro inalambriko
- 3 diadema mikro inalambriko
- 1 pie de mikro
- 2 bozgoragailu + oinak
- 1 soinu mahaia
- 1 minijack kablea
- Soinu eta korrante kableak
- Argindarra hartzeko puntua



Taldearentzat:

Kamerino edo aldagela

Taldearen furgonetarekin espazio eszenikora iristeko aukera behar dugu, deskarga eta kargarako.



Goian, Lodosan egindako emanaldia, ibaiertzean; hemen, Amasa - Villabonako garbilekuetako bat

TALDEA

Lore More Konpainia

Maialen Díaz Urriza eta Mikele Urroz Zabaltza

LoreMore konpainia Maialen Díaz Urrizak eta Mikele Urroz Zabaltzak nafar sortzaileok osatzen dugu.

Errementari (Paul Urkijo) pelikularako haur kasting-a kudeatzen ezagutu genuen elkar 2016an, eta 2017an Aragoiko Pueblos en arte proiektuan herriko emakumeekin ekintza feministak egin genituen antzerki dinamikez baliatuz (7mujeres, 7 actrices, Madrilgo Euskal Etxeko Antzerki Tailerra eman dugu bi urtez (2016-17 et 2017-18 ikasturteetan).



2020an Erriberriko jaialdian Máxima Estrella estreinatu genuen, Lucas de Bohemian oinarritutakoa. 2021eko urrian Herri Huraren irakurketa dramatizatua zuzendu eta antzeztu zuten Tabakaleran (Donosti), 021an Donostia Kutxaren antzerki testu hoberenaren irabazlea izandako Maialen Diaz-en testua.

Maialen Diaz Urriza



(Iruñea 1988) Aktore eta antzerkigilea, Nafarroako Antzerki eskolan eta Laboratorio William Layton-en ikasia, Goi antzerki Ikasketak burutzen ditu UNIR unibertsitatean, antzerkigintzan espezializatuz. Ikasketok borobiltzeko, Madrilgo Unibertsitate Complutensen idazmen performatiboan Diploma ikasten du, genero perspektibaz lantzen dena. Honetaz gain, Lehen Hezkuntzako Irakasle Gradua burutzen du NUP- en, ingeleseko espezialitatean.

Antzerkigile bezala, honako testuak sortu ditu: Herri hura (Donostia Hiria Kutxa Saria 2020), Ilargiaren atzean (Iruñeako Udalak antolatutako eta haurrei zuzendutako antzerki testuen 2019ko sariduna), Yarleku antzerki taldearentzat Etixerik txikiena/La casa más pequeña; Negua kantuz ziklorako Argia joan da, Eguberri off eta Negua kantuz (2019, 2018, 2017) eta Greta liburuzaina (Iruñeako Udalak antolatutako eta haurrei zuzendutako antzerki testuen 2016ko sariduna).

Lore More antzerki taldearekin batera Máxima Estrella idazten du, Erriberriko antzerki jaialdian aurkeztutakoa (2020). Egun Retales-en idazmenean dihardu Yarleku antzerki taldearentzat.

Lore More antzerki taldearekin batera Máxima Estrella idazten du, Erriberriko antzerki jaialdian aurkeztutakoa (2020). Egun Retales-en idazmenean dihardu Yarleku antzerki taldearentzat. Antzezle bezala honako ikuskizunetan parte hartu du: Máxima Estrella (2020), All Cats Are Beautiful (Antzerki "inmersiboa", 2019) Calatea eta Terre-moto performancek ekoiztua, El placer es nuestro/Plazera gurea da (ekoizpen propioa, 2018), Haro modernoak (Labanaroa, 2013), Dena da

gezurra eta Sagar biltzailea (Nafarroako Antzerki Eskolak, 2012 eta 2011 urteetan ekoiztua) y El mundo al revés, una escuela de bufones (Endeca teatro, 2009).

Mikele Urroz Zabalza

(Iruñea 1985) Interpretazio testualan lizentziatua (RESAD 2004- 08), bere ikasketak Compañía Nacional de Teatro Clásicoan (2009), Teatro de la Abadía (2011) eta Declan Donnellan-en teknikarekin (CDN 2018) osatu ditu.

Sorkuntza kolektiboan Grumelot konpainiarekin trebatu da Todos mirábamos al cielo tratando de distinguirla (2009) bezalako sorkuntzekin. 2011an Safronia konpainiarekin batera izen bereko antzezlanak sortu zuten.

Centro Dramático Nacionalean Yo el heredero (Francesco Saponaro, 2011) eta El Laberinto Mágico (Ernesto Caballero, 2016) antzezlanetan lan egin du.



Azken urte hauetan La Caja Flotante nafar konpainiarekin hainbat antzezlan sortu ditu guztietan aktore eta beste batzuetan zuzendari moduan ere: Fuera de Juego (2016), Marcela, la voz de la mujer libre (2017), Gris/Mar eta Catástrofe (2018).

Grumelot konpainia eta Pablo Messiez zuzendariarekin batera Los Brillantes Empeños (2014), Todo el tiempo del mundo (2016) eta Las Canciones (2019) eta La voluntad de creer (2022) antzezlanak montatu dituzte.

Zineman Jonás Truebaren Los ilusos (2013) eta La Virgen de Agosto (2019), Fernando Francoren Morir (2017) eta Axier Salazarren Dantzariak/Bailarines (2016) filmetan lan egin du.

2020an HBOko Patria eta Escenario 0 eta Movistar+eko Joaquín Reyes eta Ernesto Sevillaren Capitulo 0 telesailetan ere. 2020an LoreMore konpainia sortu zuen Maialen Diaz Urrizarekin, Máxima Estrella Iñarra Erriberriko Antzerki Jaialdian estrenatuz.

Laura Villanueva Arteaga



Haur magisteritzako diplomatua da, hala ere, berehala arte eszenikoetan interesa jarri zuen. Arte Dramatikoa ikasi ondoren, Yarleku konpainiarekin hasten da lanean, "Isla de Yul/Yul-en uhartea" ikuskizunarekin. Aldi berean, bere formakuntzarekin jarraitzen du hainbat ikastaro egiten, profesional desberdinekin, adib, Isabel Úbeda (Odrine Theatre), Andres Lima, Edurne Rankin eta Álvaro Morales ("La Llave maestra" konpainia), Bertha Bermúdez, Joan Castells, Ander Lipus etab. Beste hainbat konpainiarekin ere lan egiten du. Trokolo, Irrien Lagunak, Labanarok, Tdiferencia, Kaioak. Musikan ere aritzen da Los Zopilotes Txirriak taldearekin. Musikan ere aritzen da Los Zopilotes Txirriak taldearekin.

Hala ere, Yarleku konpainian aurkitzen du bere lekua. Orain arte lau ikuskizun ditu bere atzekaldean eta aurten beste bat estreinatuko dute, "Retales", María Fríasek (María Parrato konpainia) zuzenduta da. Antzezlan hauen artean "La casa más pequeña/Etxerik txikiena" dago, Fetén jaialdian saritua izan zena, Rosa Díaz-en zuzendaritzapean (La Rous konpainia).

Gaur egun, Nafarroako Antzerki eskolako langilea da Iruñeko hainbat ikastetxetan antzerki klaseak emanez eta aldi berean antzerki konpainian aritzen da.

Lucia Ezker Rekalde

(Iruñea 1985). Artearen Historian lizentziatu zen EHUUn. Zinema ikasi zuen Milango Scuola Civica di Cineman, non bere lehenengo proiektuetan egin zuen lan, Monica Castiglioniaren Miriam: il diario bezala. Dokumental zein fikzioan egiten du lan, proiektuen arabera.

Ekoizpen zuzendaria izan da fikziozko laburmetraietan, Mikel Subizaren Habitar edo Ainara Porrón-en Duerme negrita bezala, eta baita En Buen Sitio-k ekoiztutako Eki.librio erdimetrai dokumentalan, Ama-das luzemetraian edo Living Kultur proiektuan, Marga Gutiérrez zuzenduak hiruak. Azken proiektu luzea Bolante baten istoria izan da, Iñaki Alforja

eta Iban Toledok zuzendutakoa eta Donostiako Zinemaldian estreinatua 2021an.

Ekoizpen laguntzaile edo lokalizatzaile bezala ere beste pelikula askotako taldeetan egin du lan: Les freres Sisters (2018) Jaques Audiard zuzendua, Perdiendo el este (2019), Nacho Caballerorena, Legado en los huesos (2019) eta Ofrenda a la tormenta (2020), Fernando González Molinarenak, Nora, Lara Izagirrek zuzendua (Gariza Films), edo Koldo Almandoz zuzendutako Hondar Ahoak seriea (Txintxua Films).



KONTAKTUA

694452007

620270053

loremoremm@gmail.com

